

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak Oibar, Andosilla eta Larragako organoak eta Lodosa, Gares eta Alesbeseko euskarriak babestu ditu

Ondasun inbentariatu izendatu ditu; hori dela-eta, haien zainketari, erabilerari, mantentze-lanei eta hedapenari babes berezia emango zaie

Miércoles, 20 de agosto de 2014

Kulturako Zuzendaritza Nagusiak ondasun inbentariatu deklaratu ditu Nafarroako organo batzuk, daukaten balio artistikoa dela eta. Oibar, Larraga eta Gareskoak dira organoak; organoen kutxak, aldiz, Andosilla, Lodosa eta Alesbesekoak.

Nafarroako kultur ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legeak

babestu beharreko kultur ondarearen hiru ondasun mota jasotzen ditu: interes kultureko ondasunak, ondasun inbentariatuak eta tokiko garrantzia duten ondasunak. Testuaren arabera, ondasun inbentariatuak dira interes kultureko ondasun izateko baldintzak betetzen ez dituzten eta "garrantzi kultural nabarmena" duten ondasunak. Bestalde, tokiko garrantzia duten ondasunak, izenak berak dioen bezala, tokian esangura kulturala duten ondasun higiezinak dira.

Ondarea halakotzat jotzen denean, babes berezia ematen zaio gure kultur ondarea osatzen duten gainerako ondasunen aldean, zainketari, mantentze-lanei eta hedapenari dagokienez. Administrazioak, halaber, ondasun hori behar bezala erabiltzen dela bermatzeko zein edonolako jarduerak egitean txostenak idazteko betebeharra dauka.

Herri horietako batean XVIII. mendea baino lehenagoko organoak daudela jakin arren agiriaren bidez, gaur egun ezagutzen diren tresnak mende horretakoak dira berez, nahiz eta guztiak zaharberritu diren, konpontzeko nahiz denboran zehar sortu diren estilo artistiko berrietara egokitzeko.

Tresna batzuek zein beste batzuek pizten duten interesa ezberdina da, kasu batzuetan balioa tresnak eta tresna eusten duen kutxak baitu eta, beste batzuetan, altzariak berak bereziki. Hala, Oibar, Larraga eta Garesko organoak eta Andosilla, Lodosa eta Alesbeseko organoen kutxak jo dira ondasun inbentariatutzat.



Alesbeseko organoa

Gareseko San Pedro parrokiak Nafarroako organo barrokorik interesgarrietako bat dauka; kutxa barroko txiki bat dauka, Errenazimentuko kutsuren batekin. Oibarko San Pedro eta Larragako San Migel parrokiak ere barrokoak dira. Larragakoak, halere, rokoko estiloa dauka, eta emakumeen eskulturekin eta puntan musika-tresna bat jotzen ari den aingeru batekin dago apainduta.

Andosillako San Julian eta Santa Basilisa eta Lodosako San Migel parrokiak XVIII. Mendearen amaieran egindako organoen kutxa ederrak dituzte, estilo neoklasikokoak. Bestalde, Alesbeseko Santa Eufemia parrokiak estilo barroko organo-kutxa bikaina dauka, garaiko apaingarri ugariduna, zazpi aingeruren tailuekin.